

ONDO, BAINA ADI

Azpeitiko euskararen kale erabileraren
emaitzen gainean hausnartzen 20



**"Badakit
beti
alboan
izango
dudala"**

IRAKASLEA ETA
GAES-ENKO BEZERRA



OPINIOIAK LANTZARTE
MAGAZTOKIEN ALERDIETAN

PREZIOARIK ONENAK
GUZTIA BARNE

Audifonia • plak • azterketak
• salmenta ondorengo zerbitzua

GAES AZPEITIA

Foruen Ibilbidea, 8 - T. 943 150 395

azpeitia@gaes.es

ENTZUMEN AZTERKETA DOAN

DEITU ETA ESKATU TXANDA



gaes.es / Facebook.com/GAEScentrosAuditivos

MILAR LARRAMENDI



Smart Retail
sistema berria

Gabon zoriontsuak eta urte berri on
MILAR Larramendiren partez!



AZKOITIA Xabier Munibe, 11 / Julio Urkijo, 16
Tel. 943 85 18 97 www.milarlarramendi.com



Astelehenetik ostiralera:
9:30 - 13:00 16:30 - 20:00
Larunbata: 9:30 - 13:00



ERNE

"SD EIBAR" BIRUSA HEDATZEN ARI DA...



EIBARRERA ABONATU

Eta PRIMERAKO AFIZIO BAT kutsatu

Informatu zaitex: www.sdeiibar.com/abonatuak edo 943 201 831



SDEIBAR

• kutsatzurea afizioa

uztarria

Argitaratzailea. Uztarrria
Komunikazio Taldea. Azpeitia
Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea,
(Azpeitia, 20730)
Telefonoa eta faxa. 943 15 03 58
Posta elektronikoa.
uztarria@uztarria.com
Posta kutxa. 227, Azpeitia
Lege gordailua. SS-860/2000
Zenbakia. 189.a (2016ko abendua)
Urtea. XVII.a (1999ko azaroan sortua)
Maiztasuna. Hilabetekaria
Diseinua. Eregi Komunikazio eta
Euskara Zerbitzuak
Publizitatea. 685780412 /
uztarria@uztarria.com
Bazkidetza. 943 15 03 58
Tirada. 2.500 ale hilero
Inprimategia. Leitzaran Grafikak
Azaleko argazkia. Maialen Etxaniz
Webgunea.
www.uztarria.eus

**Uztarrria herri aldizkariaren
laguntzaileak** (erakunde
publikoak)



**Uztarrriak
Bai Euskarari**



**Eusko Jaurlaritzako
Hezkuntza, Hizkuntza
Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz
lagundua**

Oharra. Uztarrriak ez du bere gain hartzen
aldizkarian esandako iritzien erantzukizunik

2016KO ABENDUKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?



iritzia

Inkesta. Urte berriari
non egingo diozu
ongietorria? **13**

mamia

Mikel Larrañaga.
Lehen mailako
aizkolariari
elkarrizketa **04**
Klik! Ikasberriko
dantza taldearen
egonaldia Argentinako
euskal jaian **16**
Duintasuna. Pentsio
duinen alde lanean
dihardute hainbat
herritarrek **24**


jakiteko

Bestaldetik. Bertso
kontuak albo batera
utzi eta Beñat
Lizasorekin solasean **34**

Ba aL dakizu gabonetan parrokian, koru
azpian, jartzen duten naximentuak 123
urte inguru dituela? **Uztarrria**


Izan uztarriaren bazkide t 943 15 03 58

**Herri aldizkariak gain, Uztarriaren produktuak
ere eskuratuko dituzu.** Uztarrria Komunikazio Taldeak
orain arte **13 liburu, CD 1, DVD 1 eta biografia**
txikiak atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen.



1.060 bazkide
gara Uztarrria Komunikazio
Taldean; eskerrik asko denei.

30 euro
dira urtean.



Liburuxka biografikoak, oraingoz. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia,
Enkarna Arregi, Iñaki Bergara, Bernardo Aizpitarte 'Kabra', Enrike Zurutuza, Maria Jesus Arregi, Patxi Azkargorta

MIKEL LARRAÑAGA

aizkolaria

“Hiru kamioikada egur puskatzen ditut urtean”

Erdi jolasean hasitakoa afizio serioan amaitu da Mikel Larrañagarentzat. Euskal Herriko Lehen Mailako Aizkora Txapelketan hirugarren egin du. 📞📧 A. Agirrezabala

Gipuzkoako Bigarren Mailako Aizkolari Txapelketan nagusitu zen, 2013an. Herrialdeko lehen mailan urtebete eginda eta Jose Mari Olasagasti edo Iñaki Azurmendi bezalako kirolariei gain hartuta, 2014an Lehen Mailako Txapelketa irabazi zuen. Aurten, berriz, Gipuzkoako Lehen Mailako Aizkora Txapelketaren finalean aurrena egin du, eta Euskal Herrikoan hirugarren. Duela zazpi urte, erdi jolasean hasitakoa afizio serioan amaitu da. **Hogei urterekin hasi zinen aizkoran, desafio bat tarteko. Nolako erronka izan zen?** Landetako bi lokaletako kuadrillen arteko desafioa izan zen: aizkoran, harri jasotzen, lokotx bilketan, zakua eramaten, korrikan...

denetik egin genuen. Orduan, bi aizkora erosi nituen Urnietan. Tailerretik egur batzuk hartu, lokaleira eraman eta halaxe hasi nintzen. Aurretik baserrian egurra txikitzen-eta ibilia nintzen, baina esan daiteke orduan heldu niola aizkorari aurrenekoz.

Etxeko negozioa den zerrategian egiten duzu lan. Eguerra mozteko halako makineria izanda, aintzinako bideetik aritzen zara, aizkoran.

Bai, makina egurra hala moztzen ikustean pentsatzen dut: 'Gu zertan ari gaituk!'. Baina, azken finean, betetzen nauen kirola da.

Baina zu 'kaleumea' zara. Afizioa nondik datorkizu?

Bai, beno, lau urtera arte baserrian bizi izan nintzen, Aizpuru-

|||DATUAK|||||||

|||**Jaio.** 1989ko abenduak 20.

|||**Herria.** Azpeitia. |||**Bizitokia.** Azpeitia. |||**Lanbidea.** Larrañaga zerrategian mantentze-lanetan aritzen da.

txon. Gero, eskolan hastean, Azpeitira etorri ginen bizitzera. Ama Urretxuko baserri batekoa da, eta kalean bizi arren, baserriarekin lotura handia izan dut beti.

Entrenamendurako materiala lortzeko erraztasuna al da zerrategia?

Ez. Guk zerran pinuarekin eta alertzearekin egiten dugu lan, eta aizkorarako pagoa behar da. Aparte ekartzen dut nik aizkorarako egurra Frantziatik. Kamioiak 1.800 euro balio du, eta urtean hiru bat puskatzen ditut.

Afizio garestia, inondik ere.

Kapritxoa da. Australiatik ekarritako aizkora bakoitzak 400 euro balio du, eta guztira 20 ditut, baina ona beti bakarra izaten da. Guk aizkoratik ez dugu dirurik ateratzen, bestela honezkero laga genuen lana. Orain, lehen mailan egonda, gero eta erakustaldi gehiago ditugu, baina, halar, gastua gehiago egiten dugu. **Zer entrenamendu saio egiten dituzu? Nork laguntzen dizu prestaketa lanetan?**

Astean hirutan egiten dut aizkoran, eta beste bitan mendi buelta, nahiz eta aspaldian mendia utzi samar dudana. Bi horiek zuzen eramanez gero, fisikoki ondo prestatu izan naiz. Eta prestaketan laguntzen hasieratik alboan izan dut zerrategian lankide



dudan Aratzerrekako Inixio Zendoia. Entrenamendu bat bera ere ez du huts egin, eta erakustaldi guztietara laguntzen dit, zapatua nahiz igandea izan. Txapelketak gerturatu ahala, berri, Ezkioko Ugartemendia aizkolariarengana joaten gara, teknika-eta lantzerak.

Txapelketak eta apustuak biak probatu dituzu. Zer alde dute prestaketari dago-kionez? Zeu non sentitu zara erosoan?

Berez biek prestaketa bera beharko lukete izan, baina apustu baten aurrean serioago prestatzen gara; dirua dago tartean, eta jendeak ere jokatu duela entzunez gero, presioa duzu... Erosoan? Txapelketetan aizkolariaren bakkarik aritzen gara, laguntzailerik gabe. Apustuen alde ona da bi lagun dituzula; bat ura edo toalla ematen, eta bestea aizkora ematen eta markatzen. Babes hori izanda, seguruago eta lasaiago aritzen naiz. Egia da, ordea, txapelketetara joan, maila polita erakutsi eta aurrera egiten dugula ikusteak aurrera segitzeko indarra ematen dizula.

Mundu horretan hasi zine-nean espero al zenuen lortu duzun mailara iristea?

Ez bela! Aizkoran hasi nintzenean aitak hala esan zidan: 'Sekula aizkoran aritu ez, eta orain aizkoran nola egingo duk bal!'. Zendoiak berak ere esan izan dit Mendizabalak jende askok esaten zuela ez nuela aizkoran egingo. Baina hark orain esaten dit kuadrillen arteko desafio hartan ikusi zuela se-

kula aizkora hartu gabea izateko txukun egiten nuela, eta bazuela konfiantza nigan.

Zure ingurukoek zer zioten orduan eta zer diote orain?

Amak beti animatu izan nau, eta txapelketak gerturatu ahala 'jan ezazu halako edo beste halako' esanez, asko saiatzen da. Berez, zaintzen naizena baino gehiago zaintzea badago, eta futbolaria banintz, agian, zorrotzago zainduko nintzateke, baina ikusita hor ez dagoela dirurik, ez ezer, ba... Aitak ere jarraitzen nau, baina ikusten badu irabazteko moduko zeozer ez dudala irabazi...

Aurrera begira zer helburu dituzu?

Aurten lehen hiruetan geratuta, datorren urteko txapelketarako gehiago saiatzea eta hobeto prestatzea dut helburu.

Zein aizkolari duzu gustuko edo erreferente?

Olasagasti miresten dut. Edade horrekin gizonak duen indarra eta gaitasuna izugarria da.

Zer osasun du aizkorak?

Aizkora orain baino askoz ere okerrago egon da. Duela bost urte esaten zen aizkora gastatzen ari zela, baina kimu berriak bagatoz. Aurten, lehen mailako finala jokatu dugunetatik bat kenduta, gainontzeko bostak gazteak ginen, eta geure artean giro ona dugu. Txapelketetan jasotzen dugun dietaren %40 jaitsi zigten duela hiru bat urte, eta lehen mailako aizkolariak elkartzekoak gara, portzentaia hori jaisteko eskatzeko. Aizkorazaleari dagokionez, batez ere, adineko jendea da; gazteak ez du aizkorarako zerarik. Otañok eta biok apustua egin genuenean, askok esan zidaten sarrera 30 euro kobratzea exagerazioa zela. Eta orduan esaten diezu: 'Futbol partida bat ez duzu 30 eurotan ikusterik'. Baina futbola futbola dela erantzuten dizute. Bilboko Miribillan jokatu zen lehen mailako finalerako sarrera 20 euro zen, eta azken finean, puntako aizkolariak dira, profesionalak.*

“Olasagasti miresten dut. duen adinerako izugarria da duen indarra”

“Helburua da datorren urteko txapelketarako hobeto prestatzea”

Lavillenie

Abuztua zen eta goizeko hirurak buelta izango ziren zenbait kirolzale telebistaren aurrean geundenean Renaud Lavilleniei begira. Haren azken saiakera zen Rioko olinpiar jokoetan urrea lortu ahal izateko, aurkaria brasildar bat, etxekoa. Denok ikusi genuen bat-batean Lavillenie frantziar gaztea bere pertiga hartzen ari zela malkoak lehortzen; harrigarria egin zitzaigun haren mailako atleta modu horretan ikustea. Hurrengo egunean berriro malkoak isuri zituen Lavillenie zilarrezko domina jasotzerakoan, beste behin txistu eta oihu hotsak gailendu ziren Rioko Joao Havelange estadioan. Harro ziren Brasildarrak, uste zutelako, denen artean lortu zutela urrezko domina hura eta neurri batean hala izan zela esan daiteke.

Kazetariak futbolaren eragina aipatzen zuten ikusleen portaeraren errudun. Ziurrenik Lavillenie, inoiz ez zuen txisturik entzungo lehiatzen ari zenean, haurra zenetik maila goreneko kirolerako prestakuntza jaso arren, inoiz, inork eta inon ez zion isekarik egingo estadio batean. Haren aurkariak ere txalo egingo zioten jauzia egiteko prestatzen zen bitartean, ohikoa da jokaera hau atletismoan. Aurtengo olinpiar jokoetako une garrantzitsu bihurtu zen Lavillenie haren hau, harek nahi gabe noski; ziurrenik munduko errekorra lortu izan balu ere ez zituen horrenbeste orri beteko egunkarietan.

Izugarrizko aldea dago kirolek kirolera jarraitzaileek duten jarreran. Lavillenie gertatu eta aste gutxira, Bruselan ginen Van Dammeren oroimenez ospatzen den diamanteren ligako azken jardunaldia ikusten. Sandi Morrisek pertiga hartu zuen, 40.000 ikusle inguru zutik geunden eta txaloka amerikar gaztea gorantza bultzatzen, listoia zegoen 5,07 metroak gainditzeko auspoa eman nahi genion. Gehienentzat, ordura arte, zeharo ezezaguna zen Sandi, baina une horretan denok nahi genuen munduko erre-



egoitz arruti

||| Sarri gabilta baloreen transmisioaren inguruan berriketan eta badugu garaia kiroltasunari begiratzeko

kor bat zuzenean ikusi, honela, historiara igaroko zen jauzia bertatik bertara ikusi genuela kontatu ahal izango baikenuen. Jende guzti hura elkarrekin txaloka eta pertsona bakar batek egiten zuenaren zain ikusteak ileak ere tente jartzen zituen.

Kiroltasuna

Sarri gabilta baloreen transmisioaren inguruan berriketan eta badugu garaia kirolari begiratzeko, delako kiroltasunari. Hain kirolzale garen herri honetan sarri bihurtzen ditugu kirol aurkariak etsai amorratu, nahiz eta, auzokoak ditugun edo ondoko herrikoak, izan daitezke lagunak edo lagunak seme-alabak. Amorrutik eta biraoka ikusten ditugu zale sut-suak, ahalko balute irabazi eta zapaldu egingo lituzkete aurrean dituztenak kupidarik gabe. Lavillenie dituen gaitasun fisikoak kontuan izanda beste kirolen batean ere izango zuen aukerarik goiko mailara iristeko, agian ez zen hain famatu izango, edo ez zen munduko onena izango. Baina akaso ez zuen negarrik egingo txistuak eta oihuak entzutean, zeren eta, horretara ere, ohitu egiten omen gara.*





ORAIN **EKONOMIA**

Ekonomia Suspertzeko Plana

200 miliolko inbertsioa gure enpreetan 2019ra arte, gure lurraldeko ekonomia, enplegua eta ongizatea indartzeko.

200M€
2015 > 2019

Industria	
Lehen Sektorea	
Gizarteratzea	
Kultura eta Turismoa	

Gutxiengo arraro hori

Inguruan galdezka hasita, zezena izango litzateke agian gure herriaz galdetuta jendeari burura etorriko zitzaion lehen hitza. Euskara litzateke beste ezaugarri nabarmenetako bat, akaso. Hamaika ñabardura deigarri ditu gure herriak, baina bada kontu bat gainontzeko guztiaren gainetik erruz aipatzen digutena, inkomunikatuta bizi garela, hain zuzen ere. Ziur ez naizela azpeitiar bakarra izango entzun behar izan duena zein isolaturik dagoen gure herria. Zulo baten bizi garela aditu behar izan dugu etengabe, Gipuzkoa sakoneko hiri nukleo banandu bat dela Azpeitia. Hona iristea ez dela erraza, inor ez dela kasualitatez ailegatuko gure kaleetan barrena ibiltzera, eta amaierarik ez duen zerrenda hau luzatzen jarrai nezake. Baliteke kontu hauetariko asko ahoberokeriak izatea, baina garraio publikoa erabiltzeko ohitura dugunok, jakin badakigu, autobusez gure herri-iristea edo bertatik ateratzea ez dela ahuntzaren gauerdiko eztula.

Gutxiengo arraro horren parte naiz neu ere. Ez gara asko izango Euskal herritik barrena ibiltzeko garraio publikoa hautatzen dugun azpeitiarrak. Diru-zorroan Mugi, Barik eta gainontzeko garraio-txartelak. Mugikorra goraino kargatuta. Liburu bat. Hamaiketakoa, eta kito. Gainontzean, nahikoa da gogoa, denbora eta bereziki pazientzia izatea eskura dugun garraio zerbitzua erabili nahi izanez gero. Tatxan.

Urrea balio duen denbora

Imaginatuz Euskal Herriko herri edo hiri bat, kalkulatu kilometro kopurua, bertara iristeko autoz beharko genukeen denbora, eta pentsatu autoa erabili beharrean autobusa erabili nahiko genukeela. Ondoren, saiatu ordutegiak lotzen eta bidaia hori egiteko etxetik ateratzeko behin behineko ordu bat kalkulatzeko. Konturatuko zara, inkomunikazioaren kontu hori ez dela uste duzun bezain esajeratua.

Bai, lagun. Neuk ere bi aldiz pentsatzen



anartz izagirre

Agian masokista hutsa irudituko natzaizu, baina gustatzen zait batzutan herria apur bat isolatuta egotea

nuen igande gauean ikasle pisura joateko autobusa hartzerakoan. Neuri ere otu izan zait Euskal Herriko mapa eramatea, oharkabean atzean uzten ditugun herritxo txikiak zeintzuk diren jakin dezadan. Burura datozkigu udaro hutsik egiten ez dugun inguruko jaietara joateko egindako eginahalak, eta 'han ere izan naiz' diogu herri horiek autobuseko kristalaren atzetik behatzen ditugunean. Neuk ere makina bat liburu irakurri ditut autobusetan, nire buruarekin beharrezko hainbat bakarriketa izan. Guztia, horretarako denbora izan dudalako. Inkomunikatuta bizi garelako.

Gu gara gutxiengo arraro hori. Autobusean pasatako denbora gustatzen zaigu. Apur bat bananduta gaude, eta bidaiatzeko denbora behar dugu. Ordutegiak buruz ikasi behar izaten ditugu sarri, eta maleta eskuan korrika egin bigarren autobusa galdu ez dezagun. Agian masokista hutsa irudituko natzaizu, baina batzuetan bederen gustatzen zait gure herria apur bat isolaturik egotea. Denbora horri zentzu bat ematen ikasi dudalako izango da edo egunerokotasunean nire buruarentzat hartzeko gai ez naizen tarte bat ematen didalako. Kontuak kontu, eskerrak autobusei. Atera kontuak.*



Gabon hauetako izarra

Intel i3 2GHz
4GB DDR3L
500GB HDD
Windows 10



379€

ukabi
i n f o r m a t i k a

943 15 01 01

Zure ordenagailuarentzat

- Zerbitzu teknikoa
- Segurtasun kopiak online
- Mantentze-lanak

Enpresa kudeatzeko

- ERP
- Produkzioarako softwarea
- Garapenak neurria

Zaindu zure itxura

- Web diseinua
- Web posizionamendua
- Sare sozialak

Zure neurria

- Aholkularitza
- Formakuntza

Etorkizun egitasmoa abian

Herriko ikastetxeetan dabiltzan 87 haur eta gazte etorkin ari dira parte hartzen euskara errefortzua ematea helburu duen Etorkizun programan, 2016-017 ikasturtean.  Ainitze Agirrezabala

Azpeitira bizitzera etorritako atzerritarren seme-alabei euskararen ezagutza eta erabileran sakontzen laguntzeko asmoarekin, 2006. urtean jarri zuen abian Etorkizun egitasmoa Azpeitiko Udalak. Euskara Patronatuak eta herriko lau ikastetxeek elkarlanean eskaintzen duten doako errefortzu zerbitzua Lehen Hezkuntzan eta DBHn ikasten duten ikasleei zuzentzen zaie gaur egun, eta 2016-2017 honetan hamaikagarren ikasturteari ekin dio.

Azpeitiko Euskara Patronatuaren zuzendari Patxi Saezen esanetan, 87 ikasleekin hasi dute Etorkizun ikastaroa, baina "ikasturtea aurrera doan heinean zenbateko hori igo egingo da, atzerritik familia berriak herrira iritsi ahal". Aurtengo ikasturteko

zenbateko hori batuta, egitasmoa hasi zenetik, guztira, 961 hurrek eta gaztek erabili dute zerbitzua; ikasturte bakoitzean, batez beste, 100ek. Ikasle gehienak astean ordubeteko bi saiotara joaten dira, eta etorri berriak diren ikasle helduenek astean ordubeteko lau saio dituzte.

Euskaraz hitz egiten ez den tokietatik etorri diren edo euskaraz ez dakiten familietako seme-alabentzat "Azpeitia bezalako arnagune batean euskaraz bizitzeko egin beharreko ahalegina erronka handia" dela adierazi du Saezek. Zentzu horretan, "etorkinen gizarte eta hizkuntza integratziorako egitasmoa da Etorkizun. Helburu hori lortzen laguntzeko bitartekoa".*



2015-2016 ikasturtean Etorkizun egitasmoan parte hartu zuten haur eta gazteak.  Azpeitiko Udal Euskaltegia



Erika Olaizola.

ESANA DAGO

III "Jendeari kostatu egiten zaio ulertzea lanbidea dela gurea, aktoreona"

III "Gauzak ez dira berez etortzen, hazia erein behar duzu"

ERIKA OLAIZOLA
aktorea

III "Bedaiokoa zen aitona, eta erakustaldi txiki bat egiteko aukera eman zidaten lau urte betetzerako. Han bataiatu ninduten harri-jasotzaile gisa"

III "Bakarrik aritzeko kirol hila da hau, oso tristea"

AIMAR IRIGOIEN
harri-jasotzailea



Aiortza Autoak
CITROËN 943 811 915 - AZPEITIA
aiortzaautoak@telefonica.net
MOTA GUZTIETAKO AUTOEN KONPONKETAK



"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

URBISTONDO MARGOAK

Salba Auzunea, 35 beheak 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

Berpiztu


Jakina da gure herrian kontrax eta beti alai etxe bereko anaiak direla. Nire gorputzari indarra ematen dion odol (urdinean) ere biak etengabe elkarrekin dabilta gora eta behe-ra. Kontraxen berri baduzue; bere anaia beti alai ez da hain ezaguna. Baina asko maite dut, nire atalik kuttunena da, aurrera egiteko gasolina ematen didan laguna. Inpernura joa-teko deia jaso arte, beti aurrera egin behar da, eroritakoan jaiki eta palante. Atzera egin behar denean, glamourra izan behar da. Nire lagun Txapelek erakutsi zidan bezala, atzera ez egin, buelta erdi eman eta beti aurrera.

IKUSTEKOA!

Etengabe lanean ari den lepo gaineko bo-lari baikor izateko arrazoiak eskatzen dizkiot. Dakizuenez, legeaz azpeitiarra naiz eta bihotzez ere bai, azpeitiarra, ez azpeitianoa. Legez, Azpeitiak niri zer eman behar didan badakit; bihotzez nik Azpeitiari zer eman diezaiokeda-nari bueltaka ari naizela, gauza garrantzitsu batez ohartu naiz. Hilda zegoen Azpeitia bizi-berritzen ari da. Agian irudipena besterik ez da izango baina benetakoa egia delakoan nago. Herrian orain gutxi ikusten ez zen beste zerbait ikusten da. Azpeitia piztu egin da, edo ez izan ari da. Berpizte horrek arrazoi anitz

izango du baina nik bat nabarmendu nahi dut. Gure herriari gazteen ekimenek indarra eman diote. Kirol eta kultur mailan gauzak egiteko prest dagoen gazte labekada emankorra dugu. Azken boladan, xapoen herrian beti zerbait dago. Gauza handi eta ponpoxik ez baina gauza txiki eta polit asko bai.

Utzi gazteei lanean, gure orainari gatza eta piperra ematen diote, eta guk hondatzen ez badugu, etorkizuna beraiena da. Gorputza xahartuko zait, baina ipar bolak segi beza gazte, beti alai bizi ahal izateko. Eta hori lor-tzeko, edonori kontrax egiteko prest.✱



txetxu urbieta



ATHLETIC-EKO PANPINAREN MUTAZIOA.

Erdikaleko Bar Azpeitiak 1958an zabaldu zituen ateak Maria, Dolores eta Margarita Azpeitia ahizpen eskutik. Athleticzalea zen Maria, eta gaur egun tabernaren jabea den Mariaren seme Juan Eloi Zendoiak adierazi duenez, eskuetan duen "talde zuri-gorriaren panpinak barraren atzeko apalean mende erditik gora darama". Arraza zuriko -'txerri kolorekoa' zen, alegia- umea irudikatzen zuen hasieran, baina denboraren eta ke purrustaden joanarekin, argazkiko kolore 'karibeñoa' hartu du. Maria Athleticzalea zen, haren ondorengoak diren bezala. 🍷🍷 Ainitze Agirrezabala✱

|||AZAROKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...|||



Aurkikuntza arkeologikoak

LAPATX. Aro berri batean sartuta hasi dugu hilabetea azpeitiarrok. Lapatx itxi dute! Egia esan, lerro hauek idaztean oraindik sinetsi ezinda nabil, tartean, oraindik, ez delako egia. Baina pentsatzen hasita, Lapatxeko inguru hori etorkizuneko aurkikuntza arkeologikoetarako gune oparoa izango da. Gure bizimodua nolakoa izan den ederki aztertuko dute gure ondorengoek bertan aurkitutakoarekin. Batzuentzat zaborra dena, besteentzat altxor izango ote da? Badirudi hasi direla aurkikuntzekin, hortxe 1921eko *Argiako* alea San Inazioaren inguruan.



50 urte ez da gutxi!

ZUBIOLA. Industriarentzako garai zailak izan dira azkenekoak, garbi dago. Horregatik pozgarria da 50 urte bete dituen enpresa gurean izatea. Ez da bailarako lehenena, ezta bakarra ere. Horiek pasatu dituzte krisiak, garai txarrak eta baita hobeak ere, baina badakite zein den bidea, lana!



|||||alex silva|||



Sarearen aukerak

INTERNET. Gure bizitzan duen eragina nabarmena da, nabarmenagoa gure ondorengoetan eta etxeko txikiengan. Mugikorrera, Facebookera, Twitterrera... lotuta pasatzen dute eguna. Baina zer dago horietan? Zein dira arriskuak? Eta abantailak? Aplikatu daitezke hezkuntzan?... Gurean ere hasi dira horretaz ohartzen.



Negua etorri da

GAZTAINA SALTZAILEA. Badira egun batzuk hotza hasi denetik herrian, elurra ere ikusi izan dugu mendi tontorretan. Neguarekin bat etxegiroa, garaiko produktuen zaporea eta gatzaina erreen usaina...✕

INKESTA

urte berriari non emango diozu onqietorria?

Ainitze Agirrezabala

LEONOR PALMA

44 urte



"Granadako naiz izatez, eta aukera polita da familiarengana

joan eta urte zaharra elkarrekin pasatzeko. 17 lagun elkartuko gara, eta bildotsa jango dugu".

IONE URRESTILLA

45 urte



"Urte zaharretan lagunekin zerbait berezia egiteko gogoia betidanik

izan dut, baina aurtan ere etxekoekin afalduko dut. Apio salda eta konpota ez dira faltako mahaian. Hamabietako kanpaien ondoren kalera ateratzeko ohiturarik ez dut".

Existitzen ez den eguna

Euskal Herrian urte dezente daramatzadan arren, azaroaren 20a hurbiltzen den guztietan ezin dut saihestu nire buruari galdera berdina egitea: Nola da posible faxismoaren kontrako manifestaziorik ez egotea gure herrietan? Oraindik gogoan dut etorri nintzen lehenengo urtean nire bikotekideak jarri zidan harridura aurpegia "gaurko manifa zer ordutan da?" galdegin nionean. "Manifa, zer manifa?".

Azaroaren 20a pisu politiko handia duen eguna da, bi "bandoek" gogoratzeko zerbait baitute. Eskuin aldekoek Primo de Rivera eta Francoren heriotzak; bestaldean Buenaventura Durruti buruzagi anarkista eta Josu Muguruzaren erailketak. Baina dudarik gabe, efemeride horiek alde batera utzita, egun honen esanahia askoz haratago doa: beraiek edo gu, hain zuzen ere.

Lagunekin honetaz hitz egin eta iritzi desberdinak entzun ostean, guztiek bat egiten dute: ez da faxis-

moaren kontrako manifa beharrik sumatzen.

Batzuei faxismoa urruti gelditzen zaie, Espainiako arazoa balitz bezala. Zaragozan egun hau zerbait tribal bihurtzen da, jarrera bat hartzearekin lotutakoa. Tentsio handiko manifik izaten dira, batez ere Santiagoko elizan *caudillo*aren oroimenez batu direnei bisita egiten zaienean. Agian, etsaiek aurpegia dutela baieztatzea nahikoa arrazoia izan daiteke borrokan jarraitzeko.

Beste batzuentzat, aldiz, antifaxismoa zeharlerroa da, eta beste manifa guztiak eginda ("abertzaleak gara ezta?") betetzat ematen dute horrekiko konpromisoa. Munduko politikan islatzen den bezala, faxismoak bizirik dirau, eta hitz goxoagoak erabiliz birziklatzen ikasi du, gero eta jende gehiago bere sarera ekarrita.

Agian manifestatzea ez da benetan inporta duena, baizik eta horrekiko dugun erantzukizuna asumitzea. Prest al gaude?



chusemi vicente

galdetzen hasita, ba al da ikerketarik herrian jasaten ditugun usainak aztertu dituenik? Uztarria

Maite ditugunen errautsak

Aita hil zitzaigunean, Iturraldeko zelaian haritz-lan-daretxoa aldatu eta han sartu genituen errautsak, malko gozotan. Gero, amaren errautsak ere aitarenekin batera lurreratu genituen, haritzaren orpo saminean.

Orain, Vatikanotik ustekabeko xedapenak iritsi zaizkigu: ez da debekatzen hildakoak erraustea, arima ezin dela eta erre, heriotzakoan gorputzetik bereizten omen delarik; halere, hilobiratzea hobesten da eta, erretzekotan, hautsak kanposantutik edo elizatik kanpo gordetzea zorrotz debekatzen digute, kasu larri bakanen batean izan ezik, gotzainaren baimenez beti ere. Hautsak inon barreiatzea edota senideen artean banatzea ere debekatu egiten da, hildakoaren oroitzapena eta begirunea galtzeko bide emango lukeela eta. Bestalde, bere hautsak kanposantutik nahiz elizatik kanpo zabalduko liratekeen hildakoei ezingo zaie eliz hiletarik egin.

Jaun kardinal burutsuak gai hori serio-serio iker-tzen irudikatzeak... ez dakit zer ematen didan, barre-

gura ala tristura. Inork gomendiorik eskatzen badit, haxe esango nioke: maite dituzun hildakoen errautsekin egizu zure nahigabea gozatzeko eta haien oroitzapen samur eta samina ohoratzeko egokien iruditzen zaizuna. Leku guztiak dira kanpo santu, itsaso nahiz mendi, baso nahiz zelai. Hauts guztiak dira bat, batera gorde nahiz noranahi zabaldu. Lur-hautsetik gatoz, eta izar-hautsetik. Hildakoen errautsak bizi-hauts izan ziren, bizi-hats hauskorra- ren euskarri. Maite ditugunen bizigarri izan ziren, bizi-az osoki hustu ziren arte. Eta biziduna, bizi-az osoki emanez, osoki husten denean, zer bilakatzen da, Bizi huts baizik, hots, osoko, betiko, beteko Bizi baizik?


Maite ditugunen hautsak maiteko ditugun eta gaituzten bizidun berrien bizi-euskarri bilakatuko dira. Biziaren hazgarri eta hats-garri ari dira dagoe-neko bilakatzen. Eta hala ari gara bizidun guztiok, hautsetik hautsera, hatsetik hatsera, Bizi-arnasaren historia unibertsala osatzen, arnasa hartu eta arnasa eman.✱



joxe arregi



HAU HOLAXEENK



Gaueko mamuak

Hurritz, egin dugu ederra. Egia esan, ez dakit zehazki nola gertatu den. Telebista utziko genuen piztuta eta albistegiak ikusiko zenituen agian. Edo autoan irratiko esatariari entzungo zenion haur-eskolara bidean. Edo mahai gainean lagatako egunkaria irakurriko zenuen. Berdin du, jada ez dago atzera bueltarik, ikusi duzu albistea eta kito. Orain, izuaren izuz, ezin dituzu batu begietako pertsianak iluntzean.

Horrela daramatzagu azken gauak, ordua jotzen duten kanpai hotsak bata bestearen atzetik entzuten. Bat, gero bi, ondoren hiru. Sehaskari eragiten diogu eroen pare, egu-

rrezko zorua urratu arte. Zuk lo hartzea, horra gure ameskeria berritua.

Harritu egingo zaitu argiak itzali eta lo egiteko erakusten dugun prestutasunak. Nola den posible pentsatuko duzu. Galdezka ariko zara ez al dugun ikusi Altsasuko gazteei gertatutakoa, ez al dugun entzun nola sartu dituzten kartzelan parranda giroko istilu bategatik, ez al dugun irakurri nola akusatu dituzten terroristatzat begirazun oker eta bultzada batzuk gora behera. Haserre zaude, zer deabru den euskaldun jaiotze hau ulertu ezinik. Altsasuko gazte horiei gertatu zaienaren antzeko zerbait



|||||||xabi borda|||||||

inoiz zuri gertatzeko aukerak beldurtuta zauzka. Eta horrela, buruan hainbeste mamu da biltzanean, ez da erraza loak hartzea.

Neuk ere ez dakit, ordea, mamu horiek uxatzeko abestia zein den. Ez dakit ekialdera begira zein angelurekin ipini beharko nukeen sehaska gogoa zuzenean izarretara joan daki-zun amets gozoez bila. Hurritz, akaso hori amesgaiztoei ihes egiteko zure modua baino ez da izango. Alegia, begiak zabalik itxarotea egunsentiarri. Pare bat kafe hartuko ditut gaur ohera joan aurretik, ea horrela lortzen dugun biok amets txarrik gabeko gau bat igerotzea.✱

Erotikan Plax!



||||haizea egiguren-edurne mendizabal (Arremanitz-eko kideak)|||

Aretoko dantza irakasle Angel Oiarzabali egokitu zaio hil honetan 'Erotikan PLax!' ataleko sexu-galderei erantzutea.

Zer da Angelentzako dantza?

Hasieran hobya, gero pasioa, eta orain plazera eta lanbidea.

Zer da gehien gustatzen zai-zuna zure lanbidetik?

Gustuko dudun gauza batetik bizi-modua ateratzea.

Zer onura izan ditzake dantza egiteak?

Fisikoa, mentala eta soziala.

Dantza seduzio jolas bat dela esango zenuke? Zergatik?

Izan daiteke. Atmosfera berezia sortzen du musikak, gertutasunak...

Dantza eta plazera nola ez kontzen dira egokien; bana-ka, binaka, hirunaka, talde-ka?

Binaka.

Erritmoa, mugimendua, abiadura... dantzan ere garrantzitsuak dira? Zer gehiago behar da?

||||ANGEL MARI OIARZABAL|||

Jaio. 1965ko abenduak 29.

Herria. Urrestilla.

Bizitokia. Urrestilla

Lanbidea. Dantza irakaslea.



|||Erotikan Plax! Sexu eta bikote aholkularitza: Sindikatu Zaharra, 2. solairua
www.azpeitikoudala.eus/sexu 688897920
Hitzorduak, abenduan: hilaren 17an
(10:00etatik 13:00etara).|||



Noski. Erraz ibiltzea, gorputzarekin adieraztea...

Normalean, dantzari ona maitale ona omen da... Zer dio Angelek?

Ez doaz lotuta.

Gizartean dantzak merezi duen tokia duela esango zenuke? Ongi ikusia dago?

Orain gehiago.

Ezagutzen ditugu hainbat mutil, gustura etorriko liraketeenak dantza saioetara. Zergatik kostatzen da hainbeste?

Oraindik jendeak dantza femeninoztat duelako.

Janari goxo bat?

Ahizko pastela.

Usain bat?

Belar moztu berriarena eta bustiarena.

Abesti sentsual bat?

Ana Gabrielen 'Eres todo en mí'.

Urrestillako txoko erotikoa bat?

Eliz azpia, zimetarioa.✱

Diasporara bisita

Argentinan izan da Ikasberri ikastolako gurasoen dantza taldea. Hango euskal jaian parte hartzeaz gain turismoa ere egin dute. 📍 Alaitz Ruiz 📍 Ainitze Agirrezabala



▲ IGUAZUKO KATARATETAN.

24 lagunekoa taldea izan da Argentinan, azaroaren 5etik 21era, eta hainbat emanaldi eskaini dituzte Argentinako Necochean. Bazterrak ikusteko parada ere izan dute. Argazkian, taldea Iguazuko kataratetan.

► **ENTSEATZEN.**

Buenos Airesen bi egun oso egin zituzten, eta hiriburuan ostatu hartu zuten hoteleko aretoan entseatu zuten. Denbora librean, taldeko hamar bat lagunek tango ikastaroa egin zuten, eta bizitzaren patua zer den, Donostian jaio eta gerrari ihesi familiarekin Argentinara emigratutako Eduardo Cesar Arzak maisuaren tango akademian egin zuten saioa.



▼ **‘ERRIA TXIKOTA’, NECOCHEAN.**

Necochean ospatu dute aurten euskal jaia, eta hiru egunez bertan parte hartu du Ikasberriko dantza taldeak. Euskal Herritik Azpeitiko eta Hernaniko dantza taldeak izan dira diasporan, eta horiez gain, Argentinako, Txileko, Brasilgo, Paraguaiko... beste hainbat euskal etxeetako taldeak aritu dira dantzan; guztira, 26. Argazkian, Necocheako antzokian ‘Erria txikota’ dantza egiten. Luis Alberdi Beltza da Ikasberriko dantza taldeko irakaslea, eta hark azaldu duenez “antzokia leporaino beteta zegoen –900 lagunentzat aforoa du–, eta gure emanaldia bukatzean publikoa zutitu eta txaloka hasi zitzaigun, beste inori ez bezala”.





▲▼ PRESTAKETAK.

Necocheako antzokian emanaldia eskaini aurretik dantzariak prestatzen: gizonak gerrikoa lotzen, eta emakumeak buruko zapia jazten.



▲ DANTZARI GUZTIAK, NECOCHEAN.

Euskal jaian parte hartu zuten dantzari guztiak.



▲ FAMILIAKO ARGAZKIA.

Gernikako arbolaren kimu baten magalean.



▲ LEHENGUSUAK DIASPORAN.

Ikasberri dantza taldeko Begoña Arrospideren lehengusua familiarekin Necochean bizi da, eta haien etxean bazkaldu zuten azpeitiarrek.



▲ **PERITO MORENO.**

Patagoniako ibilaldirik ikusgarrienetakoa egin zuten; Perito Moreno glaziarretara. Glaziarra hausten eta erortzen ere ikusi zuten.

◀ **EUSKAL ETXEAREN ATARIAN.**

Necocheako euskal etxearen atarian atera zuen argazkia Ikasberriko taldeak, 'Gure esku dago'-ren kamisetak jantzita.

▼ **GAUTXOA IKURRIÑAREKIN.**

Buenos Aires hiriburutik ordubeteko bidea eginda, Santa Susanako arrantxoan zaldi gainean ibili ziren azpeitiarrak, eta, ondoren, sei zaldizkok ikuskizuna eskaini zien. Argazkian, gautxoa zaldiekin eta ikurriñarekin✕



Etxean eta kalean, berdin berdin jolasean, eskolan, lanean, borrokan eta bakean, dakitenek erabiliz ez dakitenek ikasiz, herri bat osaturik euskaraz nahi dugu bizi (...). Imanol Urbietta euskal musikari eta idazle zenaren *Behin betiko* abestiaren le-trek hala diote. Azpeitiko Udalak eta Soziolin-guistika Klusterrak euskararen kale erabile-raren neurketaren inguruan argitaratutako datuek adierazten dute euskarak osasun ona duela Azpeitian. Nolanahi ere, “zaintza lane-tan erne jarraitu” beharra dagoela adierazi du UEMAko lehendakari Josu Labakak. Euskara batzordeburuarekin ez ezik, Natul Azpeitiko euskara taldeko Garbiñe Bereziartuarekin eta herriko ikastetxeetako ordezkariekin hitz egin du Uztarriak gaiaren inguruan.

Zifra onak, baina...

Plazaratutako datuak “oso onak” direla eta euskara herrian “hain osasuntsu egotea poz-garria” dela dio Natuleko Garbiñe Bereziar-tuak. “Halako datuak izatea makina bat herrik nahiko luke, baina, erosotasunean erori gabe, zenbaki horiei zehatzago begiratuta, kontuan izan beharreko hainbat puntu daude”.

Neurketek erakusten dutenaren harira, Az-peitia eredu den arren, alda daiteke egoera, zazpi urtetan 4,3 puntu jaitsi baita euskara-ren erabilera herrian. Bereziartuaren esane-tan, “ez da esanguratsua” jaitsiera, baina “bai argitaratu beharreko datua” da euskararen “erabilera 65 urtetik gorakoen artean soilik



Umeak tartean dauden solasaldietan askoz ere gehiago egiten da euskaraz, %85, hain zuzen ere. **Ainitze Agirre**

Lo hartu gabe

Hamarretik zortzi solasaldi euskaraz dira Azpeitian, azken kale neurketaren arabera. Herria euskalduna da oso, baina kezkak ere badira. **Ainitze Agirrezabala**



ezabala

hazi" izana. Natulentzat "kezkarria" da, gainontzeko hiru adin tarteak aztertuz gero, "adinean aurrera joan ahala, euskararen erabilera jaisteko joera" izatea. Izan ere, umeek %90 egiten dute; gazteek %83 eta helduek %76. "Bereziki, helduena den tarte horretan bestetan baino nabarmen gutxiago erabiltzen da, eta hori ere kontuan hartzeko datua da".

Pertsonen arteko elkarrizketak ere neurtu ditu klusterrak, eta umeak tartean daudenetan askoz ere gehiago egiten da euskaraz, %85. Edo bestela esanda, umeak tartean ez badaude ez da hainbeste egiten: %74. Haurrek beren arteko solasaldien %96 euskaraz egiten dutela kontuan izanda, "kristoren aldea" dago, dio Bereziartuak: "Hor bada esaera bat: *Euskara txakurrentzat eta umeentzat*, ba mezu hori ari gara ematen". Zentzu

horretan, "jarrera horiek zaindu beharrekoak" direla gaineratu du, "umeek helduek egiten dutena imitatzen" dutelako, eta transmisio horretan "helduak eredu" direlako.

Natulek eskatuta, klusterrak aurrenekoz aztertu du hitanoaren erabilera, eta aitzindaria Azpeitia izan da. Ikerketaren arabera, entzundako hamar solasaldietatik ia bitan egiten zen hitanoa. "Eskertzekoa da ikerketa egin izana, baina datu horrek nora eramaten gaitu? Ez dakigu. Denok jabetzen gara hitanoaren erabilera behera doala, eta, noka hiltzorian dagoela. Baina hitanoaren inguruan egin behar den lanketa beste era batekoa da".

Lanketa proposamenak

Argitaratutako datuen inguruan "hausnartu eta horien aurrean zerbait egitea" Azpeitiko

herriari dagokiola adierazi du Bereziartuak. Natul elkarteak "esku hartzeko moduko bi eragin-gune" aurreikusten ditu: helduak eta gazteak. Lehenengo adin tarteari dagokionez, doako euskalduntzearen inguruan "Azpeitiko Udalaren apustua txapela kentzekoa" dela dio, baina euskaltegiko eskaintza "ordutegiari eta ordu kopuruei dagokienez, zabalgooa eta malguagoa izatea eta euskara online ikasteko aukera eskaintzea" proposatu dituzte. Bestalde, ondorengo belaunaldien "eredu" helduak direnez, haiei zuzendutako "kontzientiazio-kanpaina" egitea ere nahi dute. Gabonetarako, berriz, 'Azpeitiarrez natul' ekimena martxan jarri asmo du Natulek. "Azpeitiko hitzen eta esamoldeen bilketa egin nahi dugu. Horretarako, webgunea sortu dugu, eta hasiak gara errepertorioa gizentzen, baina herri mailan osatutakoa izatea nahi dugu, ikastetxeen, herriko taldeen eta norbanakoen parte hartzearekin".

Gazteen artean, berriz, "gaztelaniaren eragin gune handiena etorri berriak" direla adierazi du Natuleko kideak. Horiek, etorri berri-tan, murgiltze programa intentsiboa egitea "hartu daitekeen neurririk eraginkorrena" dela dio, "gainontzeko aterabide guztiak adabakiak jartzea" dela iritzita. Aipatutako egitasmoa "pixka bat konplexua" dela dio arrazoi ekonomikoengatik eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren eskumenekoa delako, baina "egiten dena baino gehiago egin daitekeela" azaldu du.

Azpeitia zergatik den hain herri euskalduna galdetuta, hainbat faktore aipatu ditu Bereziartuak. "Hasteko, kokapen geologikoa. Zuloan gaude, eta baliabide egokirik ez izateak ez du leku eroso egiten bizitzeko". Bestalde, 50 eta 60 hamarkadetan Azpeitira etorri zirenek hurrengo belaunaldia euskalduntzeko egin zuten "ahalegina" ere azpimarratu du. Horrez gain, Azpeitian "arau soziala" euskaraz egitea dela gaineratu du, eta "etxeko transmisioak ere iraunarazten" duela euskararen egoera "osasuntsu". Era berean, dio "oro har, azpeitiarren errepertorio linguistikoa oso aberatsa" dela, "batua, euskalkia eta hitanoa" ditugulako. Eta aitatu du aurreko belaunaldiak "euskara bizirik mantentzeko egoera latzak bizi eta lan asko egin behar" izan zutela, eta "kontzientzia hark ere lagundu" duela transmisioan.

Ikastetxeetako errealitatea

Zaindu beharreko altxorra da euskara, eta haren etorkizuna bermatzeko gakoa dira haurrak eta gaztetxoak. Herriko lau ikastetxeetan

ikasketak D ereduan eskaintzen dituzte, eta “giroa oso euskalduna” da, baina ikasleen artean, oro har, euskararen erabilera “jaitsiera txiki” bat eman dela adierazi dute ordezkariak. Joera horretan eragina duten faktoreen inguruan galdetuta, “gaztelaniaren eragin-gune nagusienetakoa etorkinak” direla diote aho batez Azpeitiko Ikastola Karmelo Etxegarai-ko Arantxa Letamendiak, Iraurgi ikastetxe-ko Maje Agirrek, Azkoitia-Azpeitia BHI Ikastolako Ruben Epeldek eta Azpeitiko Ikastola Ikasberri Kooperatibako Marijo Ezamak.

Epelderen esanetan, gaur egun “familia tipologia berriak” daude, “elebitasunetik eleantzasunera pasatu” gara, eta etorkinekin harreraren planetan-eta zer hobetua” badago. Agirrek dio “hizkuntza jatorria gaztelania duten etorkinen kasuan gehiago kostatzen” dela

horiek euskarara hurbiltzea. “Datozen lurraldearen arabera euskara ikasteko beharra desberdina dute. Pakistandarrek, adibidez, euskara bereganatzeko jarrera irekiagoa dute, ez dute-eta gaztelania ezagutzen”.

Euskal Herrira etorritako ikasleei lehen bi ikasturtetan eskaintzen die laguntza Eusko Jaurlaritzak, ikastetxeetan euskara ikasi ahal izateko. Letamendiaren esanetan, ordea, “ez da gauza bera ikasle horrek lehen bi urteak Eibarren edo Azpeitian egitea”, eta dio horiei euskara irakasteko eskolan dituzten baliabideak, HIPlaren figura, esaterako, “eskasak” direla eta “indartu beharra” dagoela. Horren aurrean, ordezkari guztiak bat datoz esatean Azpeitira bizitzera etorritako atzeritarren seme-alabei euskararen ezagutza eta erabilera sakontzen laguntzeko neurriak eragin-

korrena, eskolan hasi aurretik etorkinei ikastaro trinkoa eskaintzea” dela.

Alabaina, gaztelaniaren eragin-gune edo zama guztia “ezin zaie etorkinei egotzi”, lau ordezkarien esanetan. Agirreraren esanetan, “haurren eta gazteen ereduak gu gara, helduak, eta transmisio horretan dugun paperaz eta arduraz jabetzea garrantzitsua da, etxetik hasita”. Era berean, Letamendiak dio “sare sozialek eta telebistan nahiz Interneten ikusten dituzten saioek eragina dutela, gaztelaniaz kontsumitzen baitituzte”. Guzti horren aurrean, “hizkuntza jarreretan eragin beharra” dagoela adierazi du Epeldek: “Oraindik ere euskara bi funtzio informalekin lotzen dugu, etxea eta lagunartea, baina hor badira beste funtzio batzuk, herria eta nazioa, eta zoritxarrez horiek irabaztea falta zaigu”.

Euskara herritarren ahotan

Plazaratutako euskararen erabilera datuen arabera, herriko kaleetan hamar elkarriketatik zortzi dira euskaraz. Uztarria kalera atera da azpeitiarrak egunerokoan zer hizkuntzatan bizi diren galdetzera.

Euskararen arnagunea da Azpeitia, eta Uztarriak herritarrei zera galdetu die: Zer hizkuntzatan bizi zara? Zergatik uste duzu horren ondo eusten zaiola euskarari Azpeitian?

karaz egiten diet, nahiz eta haie-tako batek euskara ez menderatu ondo. Azpeitia oso herri euskalduna da, jaio garenetik eremu guztietan jan dugun hizkuntza euskara izan delako”.

ordea, ez naiz euskaraz bezain ondo adierazten. Lagunartean, kalean, eskolan, unibertsitatean... beti euskaraz egin dut. Euskararekiko dugun sentimendua, familiako transmisioa eta kontzientzia lantzeko herrian egiten diren ekimenak giltzarriak dira euskarari herrian sendo eusteko”.

karaz. Lankide bat euskaraz ikasten ari da, eta mintzapraktika egiten dugu. Oinarri oso euskaldun bat dagoelako du horren osasun ona euskarak herrian. Esaterako, garai batean erdaldun asko etorri ziren Azpeitira, baina kalean hain giro euskalduna egonda, euskara ikasteko beharra sentitu dute”.



JOSU ALONSO
12 urte

“jaiotzetik jan dugun hizkuntza euskara da”

“Euskaraz bizi naiz etxean nahiz kalean, eta kuadrillan hika egiten dugu. Marokoar eta aljeriar bat ditut gelakide, eta haiei ere eus-



LEIRE ETXEZARRETA
24 urte

“gakoak dira: transmisioa eta kontzientzia”

“Ama jaiotzez Cacereskoa da; aita donostiarra, euskalduna nuen, eta txikitatik etxean bi hizkuntzak jan izan ditut. Gaztele-raz,



ROSA LEUNDA
54 urte

“oinarri oso euskaldun bat dago herrian”

“Dakitenekin beti egiten dut eus-



ANTONIO GOMEZ
66 urte

“ondorengoei irakatsi diet euskara maitatzen”

“Sei urterekin etorri nintzen Badajozeko Valle de la Serenatik Azpeitira. Mutikotan kalean jolasean eta, gero, tailerrean ikasi nuen azpeitiarrez. Emazteak ez daki euskaraz, baina etxean hiru alabei eta bilobei beti euskaraz egiten diet. Sustraiak ahaztu gabe euskara maitatzen irakatsi diet ondorengo belaunaldiei. Herrian euskarari horren ondo eustearren arrazoietako bat hori da, hain zuzen”.

JOSU LABAKA UEMako lehendakaria eta euskara batzordeburua

“Euskara belaunaldiz belaunaldi transmititu da azpeitian, eta horri heltzen zaio oraindik ere”

||| Plazaratutako datuen arabera, Azpeitiak ez du beste udalerririk euskaldun batzuetan bezalako beherakadarik pairatu. Nolanahi ere, UEMako lehendakari Josu Labakaren esanetan, datu horiek “aldakorrak” dira, eta “zaintza lanetan erne jarraitu beharra” dago, UEMATik “lanketa bereziak” eginez, esaterako.

Azpeitiko kaleetan solasaldien %81,8 dira euskaraz. Zifra ona edo txarra da hori?

Zifrak aztertzerako komeni da testuinguruan kokatzea. Udalerririk euskaldunek beherakada nabarmena jasan dute euskararen erabileran, batik bat, azken hamarkadan. Dena den, ikusi dugu azpeitiarrak jarraitzen dutela euskaraz bizitzen. %81,8 zifra ona da, herritarren fideltasuna kontuan hartu behar da, eta aurrera begira zertan hobetu dezakegun aztertu, eragileekin eta herritarrekin.

Herrian %83,7k dute euskaraz egiteko gaitasuna eta %81,8k egiten dute. Horrek adierazten du azpeitiarrak fidelak direla euskararekin.

Hala da. Belaunaldiz belaunaldi transmititu da euskara Azpeitian, eta datuek erakusten dute horri heltzen zaiola oraindik ere. Lana egin behar dugu horri eutsi eta falta diren hiztunak euskarara erakartzeko.

Zergatik eusten zaio horren ondo euskarari Azpeitian?

Herritarren atxikimenduagatik. Familiatik jaso dute euskara azpeitiarrak, eta etxerako eta kale-rako hizkuntza bezala ikusten dute gehien-gehienek. Horrez gain, Azpeitiko Udalak euskararen aldeko jarrera tinkoa du, eta hala erakutsi du euskaltegian eginitako apustuekin, euskarazko prentsa babestearekin...

Udalerririk erdaldunak gero eta gutxiago dira, baina baita euskaldunak ere.



Josu Labaka, bulegoan. ||| Eneritz Albizu

Noren ardura da euskararen arnasmuneak zaintzea?

Erakundeena zein herritarrena. Udalerririk euskaldunetako erakundeek ulertu behar dute eredu dirrela, eta beraiei dagokiela euska-

“%81,8 zifra ona da, eta herritarren fideltasuna kontuan hartu behar da”

“Azpeitiarrak gaitasuna dute beste Lekueta-neraquitako”

raren aldeko neurri ausartak hartzea. Horrez gain, UEMaren garrantzia ikusi behar dute, lurgune euskalduna sortu eta zabaltzeko lan horretan. Udalerririk euskaldunetakoak ez diren erakundeek ere izaera berezia aitortu behar diete arnasmuneei, eta eskaintzen dituzten zerbitzuetan –Osakidetzan, Lanbiden...– euskara bereziki hartu kontuan. Bestalde, herritarrek ere eragile izan behar dute hizkuntza hautuekin, eta oinarritzakoa da haien kontzientzia.

Gurearen gisakoak dira euskararen etorkizuna bermatzekoak. Nola eragin diezakegu beste herriei?

Beti erabiltzen dugu adibide hau: azpeitiarrak Bilbora doazenean ikastera lider papera dute euskararen erabileran. Horregatik diogu arnasmuneetako hiztunak erreferentziazkoak direla arnasmuneetan zein Euskal Herrian. Beraz, azpeitiarrak badute gaitasuna eta ardura puntua beraien hizkuntza beraien herrian zaintzeaz gain, beste leku batzuetan ere eragiteko. Horrez gain, gune euskaldunetako herritarrek erakutsi dezakete posible dela euskaraz bizitzea, proposamen erreala dela.

Azpeitia eredu den arren, alda daiteke egoera. Zazpi urtean 4,3 puntu jaitsi da euskararen erabilera herrian. Zer irakurketa egiten duzu?

Lanean jarraitu behar dugula, zailtzarik gabe. Gune ahulak identifikatu eta herriarekin batera egin behar da lanketa. Horrez gain, argi dugu euskararen aldeko apustuarekin jarraituko dugula gure erakundeetan. Dena den, ez da komeni datu horietan itotzea; jaitsiera txikia da, eta hurrengo neurketako datuak beharko genituzke erreala al den jakiteko.

Erabilera 65 urtetik gorakoan artean soilik hazi da. Gai nontzeko adin-tarteetan behera egin du. Euskararen etorkizuna bermatzeko horiekin zer lan egin pentsatu duzu?

Azaroan bilera bat egin genuen euskararekin lotura duten eragileekin, esate baterako, ikastetxeekin, Euskara Patronatuarekin, Natul elkartearekin, euskarazko hedabideekin... eta haien kezkek eta ekarpenak jaso genituen, eta aztertuko dugu zer lan ildo jarraitu. Egia da kezkarria dela etorkizuneko herritarren artean hizkuntzaren erabilera jaitsi izana, eta bat egin genuen guztiok kezka horretan. Lehendik ere ikusi genuen joera hori UEMAn, eta horregatik jarri dugu abian arnasmuneen inguruko hezkuntza proiektua gure udalerrietan. Azpeitian ere ikastetxe guztiokin ari gara lanketa egiten hizkuntzaren garrantzia eta arnasmuneen papera gazteenei transmititzeko.

Hitanoa, berriaz, hamar elkarriketetatik ia bitan egiten zuten. Nola baloratzen duzu?

Zaila da baloratzea, Euskal Herrian egiten den hitanoaren erabileraren lehen azterketa delako. Oro har, Euskal Herrian hitanoa gero eta gutxiago erabiltzen da, batik bat, noka forman, eta aztertze-ko moduko gaia dela uste dut.

Euskararen inguruan lanean diharduten eragile eta norbanakoekin elkarlanerako zer bide ikusten dituzu?

Bai udaletik, baita UEMATik ere, beti eskaini izan ditugu elkarlanerako guneak, guztiok baitugu gai honetan eragiteko gaitasuna. Eragile guztiokin dugu harreman iraunkorra, hainbat fororen bitartez. Esate baterako, Hezkuntza Mahaian biltzen gara ikastetxeekin, eta euskararen gaia presente dago bertan, ulertzen dugulako zeharlerrokotasunez landu beharrekoa dela euskararena. Azken bileran proposatu genuen elkarren berri izateko gune bat sortzea, eta horri itxura nola eman ari gara pentsatzen.✱

Borroka duina

Pil-pilean dagoen gaia da pentsioena. Duintasuna elkarteko azpeitiarrak, baina, aspalditik dabilta pentsio duinen alde lanean eta borrokan. 📝👁️ Maialen Etxaniz

Duela sei urtetik, 2010az geroztik, Gizarte Segurantzaren diru sarre-
rak ez dira gastuak estaltzeko adinakoak. Garai zailei aurre egiteko aurreikusita zegoen pentsioen itsulapikoa, erreserben funtsa, hustu egin du Mariano Rajoyren gobernuak

legealdi batean. Kontuak ez datoz bat pentsioekin.

Gaur egun pil-pilean dagoen gaia da pentsioena, eta azken boladan komunikabideetan gero eta leku gehiago hartzen ari da. Baina badira urte batzuk Duintasuna Gipuz-

koako Jubilatuen eta Pentsiodunen Elkartea gaiaren inguruan lanean hasi zenetik. Horien artean daude dozena inguru azpeitiar.

Hiru dira Duintasunaren lan ildoak: botiken berrordainketa, mende-kotasuna eta pentsioak. Arrosa Bordak (Azpeitia, 1945) azaldu



Gipuzkoako Pentsiodunen Elkartea deituta elkarretaratzea egin zuten Azpeitiko plazan, plazan. |||Uztarria

duenez, Duintasunatik 1.080 euroko gutxieneko pentsioa eskatzen dute Europako Karta Sozialak adierazten duen pobrezia-aren mugatik ez erortzeko. Hala ere, pentsio duinen aldeko elkarteko kideek sektoreen arteko borrokarik ez dutela nahi azpimarratu du Bordak: "Guk ez dugu nahi langileek 800 euroko soldata izan eta guk 1.080 euroko pentsioa izaterik. Guk guztiontzako lan eta bizi baldintza duinak nahi ditugu". Duintasunako Azpeitiko kideen arabera, gaur egun hilean oinarritzko beharrak betetzeko duintasunezko gutxieneko diru-sarrerak 1.000 eurokoak dira pertsonako; Hego Euskal Herrian 454.064 pentsionista dira hilabeteko 1.000 euro baino gutxiago kobratzen dutenak.

Aberastasunaren banaketa zuzena eskatzen dute, eta zerga sistemak hori bermatu beharko lukeela uste dute. Horregatik, zerga sistemari begirada bat eman behar zaiola diote: "Ez da zilegia langile xumeek, soldata 1.000-1.500 euro inguru dituzten langileek, edota enpresa handietako ugazabek zergen ehuneko berdina ordaintzea", diote.

Mezua zabaltzen

2016ko urriko datuen arabera, 670.448 pentsiodun daude Hego Euskal Herrian, baina datua goraka doala uste du Arrosa Bordak: "Pentsiodunak gero eta gehiago gara, eta ikusten dugu asko ikasi beharko dugula. Izan ere, pentsio duinak eta publikoak nahi ditugu, eta hori bermatzeko pentsiodunak garenok alternatiba ezberdinak aztertu behar ditugu. Horretan gabiltza orain".

Gaia gizartearatzea garrantzitsua dela uste dute Duintasunako Azpeitiko kideek, eta horretarako hainbat ekimen egin dituzte: sindura bilketak, elkarretaratzeak, manifestazioak eta konferentziak, besteak beste. "Uste dugu gure ekarpena egiten eta informazioa zabaltzen jarraitu behar dugula, herritarrekin, sindikatuarekin zein instituzioekin harremanak mantenduta", azaldu dute.

Norbanakoek, taldeek, elkarrekin eta instituzioek norabide berean lana eginez gero, emaitza ona izan daitekeela uste du Bordak. Horregatik, Elkar-ekinekin, Baigerarekin eta

Azpeitiko Udalarekin harremanetan daude, besteak beste. Elkar-ekinekin egindako lan-taren barruan, esaterako, hainbat hitzaldi antolatu izan dituzte, tartean Miren Etxezarreta ekonomialariarena, herritarrek pentsioen etorkizunaz informatzeko eta gaiaz hausnartzeko.

Azpeitiko Udalak gaiaren aurrean izan duen jarrera "estimagarria" dela esan du Arrosa Bordak. Izan ere, joan den ekainean herriko jubilatutako pentsiodunek dituzten eskubideez informatzeko kanpaina jarri zuen abian, Gizarte Zerbitzuen bitartez.

Nola eutsi pentsioei?

Pentsioak bermatzeko hainbat faktore hartu behar dira kontuan: Gizarte Segurantzari egiten zaion ekarpen ekonomikoa eta datu demografikoak, kasu.

Gizarte Segurantzaren diru iturri nagusia (%90) soldaten kotizazioetatik dator, eta hori pentsioak ordaintzeko erabiltzen da. Gaur egun langileen kotizazioa baxuagoa denez, erreserben funtsa jo du Espainiako Gobernuak.

Horretan eragina izan du lan merkatuaren prekarizazioak. Iaz, esaterako, Espainian %3 igo zen afiliatu kopurua, baina soilik %1,35 kotizazioena. Lanpostuak sortzen ari dira, baina gehienak soldata eskasekoak direnez, horrek txikitu egiten du afiliatuen ekarpena.

Sistemaren zuloa estaltzeko bi aukera daude: diru sarrerak handitzea edo gastua

III "Guztiontzat lan eta bizi baldintza duinak nahi ditugu"

III "Emakume alargunena da sektore ahulena, eta horien pentsioak aurrekontu orokorretatik bideratzeak ez ditu pentsioak bermatzen"

ARROSA BORDA

Duintasuna elkarteko kidea

txikitzea. Edo biak batera. Azken erreformek (PSOEn gobernuaren 2011ko erreformak eta PPren 2013koak) pentsioak jaistearen aldeko hautua egin zuten, eta gaur egun bistan da hori ez dela konponbidea.

Fatima Bañez Enplegu ministroak beste aukera bat ere aipatu du azken hilabeteetan: pentsioaren %100 kobratuta ere lan egiteko aukera. Martin Alegria (Nuarbe, 1944) ere Duintasunako azpeitiarretako bat da, era haren ustez behin jubilaziora iritsitakoan beste lehentasun batzuk daude: "Pertsonen behin adin jakin batera iristen direnean lan produktiboa amaitu behar dute. Nahikoa gelditzen zaio bizitza mantentzearekin, ingurukoak zaintzearekin. Lanpostu erosoak dutenek agian jarraitu dezakete, baina 14 urtetatik lanean ari diren langile xumeek 65 urterekin nahikoa dute. Jubilazioa izugarritzko lorpena izan da, eta horri eutsi egin behar zaio".

Alargunen egoera, 'larria'

Pentsioak ez daude hirugarren adineko pertsonen bideratuta soilik, besteak beste, alargunei zuzenduta daude. Horien egoera "larria" dela uste dute Duintasunako kideak, eta "lan asko dagoela egiteko".

Joan den azaroan alargunen pentsioen partida Gizarte Segurantzatik hartu beharrean espainiar estatuko aurrekontu orokorretatik hartzeko aukera mahai gainean jarri zuen Fatima Bañez Enplegu ministroak. Hori "oso larria" litzatekeela dio Bordak: "Sektorerik ahulena alargunena da, eta zer esanik ez emakume alargunena. Horien pentsioak aurrekontu orokorretatik bideratzeak ez ditu pentsioak bermatzen. Izan ere, aurrekontuak aldatu egiten dira urtez urte, espainiar estatuak dituen diru sarreren arabera. Eta pentsioen etorkizuna kolokan jartzea oso kezagarria da".

Pentsioak ordaintzeko behar den dirua eta dauden sarreren arteko kontuek ez dute koardratzen. Hala ere, horrek ez du esan nahi epe laburrera edo ertainera espainiar estatuak pentsioak ordainduko ez dituenik. Baina duintasunako kide azpeitiarren hitzetan gauza bat argi dago: "pentsioak finantzatzeko modua birpentsatu behar da".



Paperak, dossierrak, txostenak...

Gizonezko gipuzkoar batek zorra zeukan Foru Ogasunarekin eta Xabier Letek utzitako idatzi, paper, kartel, gutun eta abar zeuzkan. Letek utzitako altxor horrekin zorra ordaintzea onartu zion Foru Aldundiak. Ehun eta piku mila eurotako balioa aitortu altxorrari eta enpazak egin zituzten, ez hartzeorik eta ez emateorik. Leteren materialak gipuzkoarron jabetzan eta mundu guztiaren esku geratu ziren.

Lau haizetara iragarri ziren "dohaintza" hori eta Aldundiaren poza gipuzkoarron kultur ondarea modu horretan hazi eta babestu egiten zelako. Ikusi nahiko zuketenenentzat berariaz horretarako izendatutako batzorde bati baimena eskatzea iragarri zen. Nonbait ezkutan egon beharreko kontuak badaude paper horietan. Ezin dut ulertu. Edo gordean eta ezkutan daude ala agerian, nornahiren eskuragarri, baina batzuei uzteko eta besteei ez uzteko aukera egotea okerra iruditzen zait. Eta hala jokatzekotan irizpideak aurrez ez jakitera ematea okerrago. Zer arrazoigatik ukatu behar zaio herritar bati guztion ondarean sartu eta arakatzea? Zer arraiogatik izan behar dute batzuek guztiok izan ez dezakegun baimena. Zintzotasuna, euren zintzotasuna, morala, euren morala, eta apaizkondokeria balizkoek urduri jartzen naute. Ikuskitun.

Azpeitian oroimenari eman dizkio Aranzadi Zientzia Elkarrekin buelta pare bat edo gehiago udalak agindu eta kontratatuta. 36ko gerratearen inguruko bi dokumentu eman dira argitara eta, dirudienez, komunikabideek kontatu digutenez 1960tik 2014ra arte giza eskubideen urraketek eragindako sufrimenduaren Azpeitiko mapa ere burutu omen da. Badirudi herritar guztion behar duen lan hori giltzapean jaso duela udalak datuen batesa eta konfidentzialtasun kontzeptu bitxi bategatik. Eman zaigun zeharkako informazioa sinestea besterik ez daukagu edo lan hori ezagutzeko inork erreklamatu ez duen



|||||||ramon etxezarreta|||||||


|||Beharko genuke izan, ba, ordaintzen ditugun eta jakin beharreko ditugun lanen berri errazago! Ez?

araudi edo prozedura erreklamatzeko. Ez dut ulertzen.

2001eko datuak

Azpeitiko udalak, soziolinguistika klusterraren bidez, Azpeitiako(sic) hizkuntza-erabilaren eta hitanoaren presentziaren kale neurketa burutu du. Hori dela eta datu deigarri eta bitxi dezente argitara eman zaizkigu hedabideetan. Badirudi zenbait talderen esku ere jarri dela txostena. Saiatu naiz ikerketa jendearen agerian non eta nola egon daitekeen bilatzen, nola eskuratu miazten. Udalaren weborrian sartu eta *Euskararen egoera Azpeitian* izeneko atal bat aurkitu dut, zeinak dio: *Azpeitiko Mapa Soziolinguistikoa tresna garrantzitsua izango da Azpeitian hizkuntza politikari buruz hartu beharreko neurriak erabakitzeko*. Duela hamabost urteko datuak eskaintzen dira bertan, 2001ekoak, alegia.

Beharko genuke izan, ba, ordaintzen ditugun eta jakin beharreko ditugun lanen berri errazago! Ez?✱



Olatz Zugasti, zuzenean

Abeslari eta harpa-jotzaile hernaniarrak hamahiru kantuz osatutako 'Ur goiena, ur barrena...' bosgarren lana aurkeztuz zuzenekoa eskainiko du Soreasun, hilaren 9an.  Ainitze Agirrezabala

Olatz Zugasti abeslaria eta harpa-jotzailea (Hernani, 1965) Benito Lertxundiren taldekidea da 1981. urteaz geroztik. Alabaina, bakarlari gisa ere ibilbide artistiko propioa lantzen ari da aspalditik, eta bere harrobitik sortutako kantuk bilduz, bost disko argitaratu ditu urte guztiotan: *Kantuk baten bila nabil* (1991), *Bulun bulunka* (1998), *Elearen lainoa* (2002), *Gau hotzenean ere* (2010) eta *Ur goiena, ur barrena...* (2015).

"Lan iradokitzailea"

Hamahiru kantuz osatutako *Ur goiena, ur barrena...* lanean ere konposizio eta interpretazio ira-

III DATUAK

III **Zer.** Olatz Zugastiren kontzertua. III **Eguna.** Abenduak 9 (ostirala). III **Ordua.** 22:00. III **Tokia.** Soreasu. III **Antolatzailea.** Kulturaz.

III OLATZ ZUGASTIREN KONTZERTUA

5 . diskoa. Hamahiru kantuz osatuta dago *Ur goiena, ur barrena...*
15 euro. Sarrerak aurrez eskuratu ahal izango dira www.kulturaz.eus-en, eta egunean bertan ere salgai jarriko dituzte.*

dokitzaileak bezain zabalak dartzatza Zugastik. Besteak beste, diskoaren izen bera duen kanta herrikoia entzun daiteke, Pako Aristiren letrak dituen abestia edota Irlandako doinuak.

Sarrerak aurrez eskuratu ahal dira www.kulturaz.eus webgunean, 15 euroren trukean, eta egunean bertan ere salgai izango dira.*

III BESTERIK

1 Harri-jasotze desafioa

Xabier Aranburu 'Guzta' eta Iban Ugartemendia neurtuko dira.

III **Eguna.** Abenduak 11 (igandea). III **Ordua.** 12:00.

III **Tokia.** Izarraitz pilotalekua.

2 Txapelen omenezko saioa

Miren Amuriza, Amets Arzallus, Andoni Egaña, Jon Gurrutxaga, Oihana Iguaran eta Maialen Lujanbio ariko dira. Sarrerak: aurrez, 6 euro; egunean, 8 euro.

III **Eguna.** Abenduak 20 (asteartea). III **Ordua.** 22:00.

III **Tokia.** Soreasu antzokia.

III **Antolatzailea.** Erriarraitz.*

III Informazio gehiago: uztarria.eus/agenda



Olatz Zugasti harpa jotzen. www.kulturaz.eus



"Il Partigiano" azpitiko lehen pizza artisan egilea da. Gure italiar pizza tradizionalak produktu fresko eta naturalekin eginak daude. Egunean etxean egindako masarekin, momentuan eskuz zabaldua.

ETXERA ERAMANGO DIZUGU

Telefonoa
943 08 09 13

ildefonso gurrutxaga, 12 behea



HITZ GEZIDUNAK

	Saiakera	▼	Anarkoa	▼	Samurrak	▼	Bat ere	▼	Katez lotu
	Zaintsuak		Erreka handia		Areago		Egoskin mota		
	►		▼		▼		▼		
	Deitura	►							
	Jada								
Txiki-biki egin	▼	Zintzari handia	► ▼				Interjekzioa	►	
* Izena		Inbutuak					Gipuzkoa-ko herria		
►		▼		Ikastaroen hasieran	►		Otarre	▼	
				Masurioa			Oholtza		
Indioa	►		Ohaidea	► ▼		▼			
Txori mota			Orga mota						
►		▼			Pilotan hasteko	►		Tona, labur-labur	►
					Bokal biribila			Suitzako ibaia	
Bilo	►			Bururatu	► ▼		Egunaren atal	► ▼	
Ate inguru				Idi, hitz elkartzeetan			501		
►			▼		Garaia	►	▼		Bokala
					Urania				
Ezeztatu	►				▼	Arabako udalerria	►		▼

* Dantza irakasle azpeitiarra

SUDOKUA

		6			9			1
1	9		8					
3	2	7			5	6		
	3					1		
5		1				8		3
		8					6	
		2	1			4	8	5
					4		2	6
4			2			9		

IRAUR

MASAJE - OSTEOPATIA



Bustinzurko Errebela 13. atzea
Mug. 676 290 320

- Kirol Masajeak
- Drainadura linfatikoa
- Oinetako erreflexologia
- Masaje terapeutikoak

- Osteopatia
- Estrukturala
- Digestiboa
- Garezurrekoa

|||UZTARRIAREN LEHIAKETA: JEROGLIFIKOAK|||||||

|||JEROGLIFIKOEN SOLUZIOAK BIDALTZEKO EPEA. Abenduaren 19 (astelehena) |||NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea (Azpeitia) edo lehiaketakuztarria@gmail.com e-postara |||IRABAZLEARI SARIA. Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta |||PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da eta jergoglifikoaren irudien azpiko galderei erantzun behar zaie.

1



2



|||LEHIAKETAREN ERANTZUNAK|||||||

1 ELEMENTU KIMIKOA

2 EZ DA NIRE GUSTUKO GENEROA

|||BAZKIDEAREN IZEN-ABIZENAK

|||HARREMANETARAKO TELEFONO ZENBAKIA

|||SOLUZIOAK|||||||

HITZ GEZIDUNAK

A	R	A	I	A	•	U	T	A	K	U	•
•	A	I	D	L	A	•	I	R	A	T	A
U	V	G	•	U	T	O	•	E	L	I	•
T	•	E	K	A	S	•	A	L	I	K	O
A	E	L	A	T	A	I	M	•	N	I	•
E	R	A	Z	•	K	I	•	A	O	X	U
T	E	•	A	E	R	A	O	J	•	T	•
A	T	E	R	R	A	I	•				
K	V	T	R	V	N	I	V	Z			
•	B	•	E	•	A	•	S	•			

SUDOKUA

2	1	6	9	5	2	3	8	4
9	2	3	4	8	7	5	1	6
5	8	4	3	6	1	2	7	9
6	9	2	1	3	5	8	4	7
3	7	8	2	4	6	1	9	5
4	5	1	8	7	9	6	3	2
8	6	9	5	1	4	7	2	3
2	3	5	7	9	8	4	6	1
1	4	7	6	2	3	9	5	8

AURREKO HILEKO JEROGLIFIKOAK

1
Manex2
Giorgio Armani

|||UZTARRIAREN EKAINEN LEHIAKETA|||||||

IRABAZLEA



Izaskun Agirre
Uztarria Komunikazio
Taldearen bazkidea da
aldizkariko 188.
lehiaketaren irabazlea.
Kutxillo urdaitegiak
emandako produktu
sorta irabazi du sari
gisa. Argazkian
lehiaketaren irabazlea,
produktu sorta
eskuetan duela.



Urdalazplikoak, hestebeteak eta gaztak

Etxeko berezitasuna:
Ezkur urdalazpliko Iberikoa

Eñaut: 658 79 14 19
Oier: 618 24 01 73
kutxillo@gmail.com
Damaso Azkue 6

Oscar Wilde azpeitiarrez

Imanol Azkoitiak azpeitiarrez idatzi du Oscar Wilden 'Dorian Grayn erretratue'. Liburua eskuragarri dago Azpeitiko Udal liburutegian, eta Azkoitiko Hizki liburutegian. Uztarria.eus

Imanol Azkoitia azpeitiarrak Oscar Wilde idazlearen *Dorian Grayn erretratua* liburua azpeitiarrez idatzi du. Aurrez euskarara itzulita zegoen obra, eta horretaz Aitor Arana idazle eta hizkuntzalari legazpiarra arduratu zen. Imanol Azkoitiak azaldu duenez, "Aitorrek euskalkiak berreskuratze-ko eta horiek mantentzeko izugarrizko lana egin du, eta Azpeitiko aldaera jasotzea interesgarria iruditu zitzaion".

Aspalditik ezagutzen dira Imanol Azkoitia eta Aitor Arana, eta horregatik eskatu zion laguntza idazle legazpiarrak azpeitiarrari, eta azken horrek bere denbora librean itzuli du Oscar Wilden liburua. "Euskalkiak galtzen ari diren honetan halako lana egitea interesgarria iruditu zitzaidan, eta oso gustura aritu naiz liburua itzultzen", adierazi du Azkoitiak. Gainera, "euskara eta euskalkiak sustatzeko" balioko duela uste du.

||| "Interesgarria iruditu zitzaidan lana, euskalkiak galtzen ari diren honetan"

Dorian Grayn erretratue izena jarri dio Imanol Azkoitiak itzuli berri duen obrari, eta 50 ale argitaratu dituzte. Liburua dagoeneko salgai dago Azkoitiko Hizki li-

burudendan, 9 eurotan. Herritarren eskura ere jarri nahi du obra, eta Azkoitiak aurreratu duenez, liburuaren ale bat edo beste Soreasuko Elkargunera eramateko asmoa du. Azpeitiko Udal liburutegian ere eskuratu daiteke *Dorian Grayn erretratue*.

Aitor Aranak Oscar Wilde idazlearen *Dorian Grayn erretratua* hainbat euskalkitan argitaratzeko asmoa du.✱



Azkoitia 'Dorian Grayn erretratue' liburuarekin. ||| Julene Frantzesena

||| EFEMERIDEAK |||||

1912

Gernikako arbolaren landarea. Zinegotzi batek egindako proposamenari jarraituz, Udalak Gernikako arbolaren jatorrizko landarea frontoiaren inguruan aldatzea eta burdinazko hesi batez inguratzea erabaki zuten.

1964

Xoxotera, erronka. Bustinzuriko errebaletan zen Agedaren Bodegoe ondotik abiatu eta Xoxote gailurretik joan-etorria egin zuen Inazio Garatek 48 minutu eta 48 segundotan.

[Iturria:](#) Azpeitiko efemerideak. Herria historian zehar liburua.

||| Egilea: Imanol Elias Odriozola.

||| Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinakundea.✱

||| BIDEOAK |||||



Azpeitiko baratze parkeak.✱



Segurtasuna

Gabonetan elikatzeko modua aldatu egiten dugu. Sukaldea elikagaiak manipulatzeko den lekua dela kontutan izanda, mikroorganismo patogenoen sarrera azkarra bihurtzen da. Higienea, manipularioa, erabilitako tresnak, egosketa denborak eta tenperaturak faktore garrantzitsuak dira. Egiten ditugun zenbait akats ezagutzeak elikadura infekzio ugari saihesten lagunduko digu.

Ez desizoztu janaria giro tenperaturan. Janariak hozkailuan sartu eta 24 orduko tartean kontsumitu.

Eskuak garbitu janaria manipulatutako baino lehen, mikroorganismoek janaria kontaminatu baitezakete.

Ez utzi prestatutako janaria labean edo sukaldeko giro-tenperaturan; beti hozkailuan gorde.

Ez prestatu mahonesa aurretik. Arraultza gordinek elikadura gaixotasunen jatorria izan dezaketen mikroorganismo ezberdinak izan ditzakete. Gomendagarriena momentuan eta kantitate justuan prestatzea da, eta berehala kontsumitu behar bada ere hozkailuan gordetzea.

Janari gordinak eta sukaldatutakoak ez gorde elkarren ondoan hozkailuan, bata bestea kontaminatu baitezake. Sukaldatutakoak hozkailuaren goiko aldean jarri, janari gordinen tantak saihesteko, eta gordinak itxitako ontzietan jaso.*



aitziber aizpuru

ESTHER IZTUETA dentista



1. Hortz bat?

Betortza.

2. Aho garbiketa. Osasun kontua ala estetika?

Lotuta doa; jendeak gero eta kontzientzia handiagoa du.

3. Ohiko zeregina?

Enpasteak eta hortzoiak garbiketa egitea.

4. Lan konplexuena?

Protesiak, inplanteak...

5. 'Perez saga'...

Ilusio hori dute umek.

6. Garbiketa erritua...

Otordu guztien ondoren, eta gauean haria ere bai.

7. Amesgaiztoa zarete...

Fobia digute askok, guri

eta ginekologoei.

8. Zotzaren erabilera?

Oso txarra. Oiak mintzen ditu. Haria aholkatzen dut.

9. Anekdotarik?

Zahar-etxean hortzordeak lapurtu zizkiotela-eta aitona bat etorri zitzaigun.*

Ainitze Agirrezabala

Ekain
ALBAYTERI KLINIKA

Euskarri Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel: 943 15 16 40

Lamialdeak
943 15 16 40

ostadar optika
OPTIKAK - OPTOMETRIKAK

Jose de Arrese, 17
Tel: 943-810954
AZPEITIA

Jose Ochoa, 28
Tel: 943-850445
AZKOITIA

Xabier
magoak

Pinturak eta Parket Laminatuak

Pablo VI, 20 - Tel: 943 15 73 25 - www.xabiermagoak.com

ORDULARI

Joan de Arrese, 10
Tel: 943 81 52 44
20730 AZPEITIA

uba
BIOLOGIA

Biofarmakologia
Farmakologia
Farmakologia

Gestari lanak
Finanzen administrazioa
Gestio teknikoak

Tel: 943 151 220 Fax: 943 151 275
Euzkadi Kalea, 41 - 48013 Leioa (Bizkaia)

KIRURI
JATETXEA

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA

Tlfnoa: 943 81 50 08
Faxa: 943 15 03 62

adi
ARTE ETA
DISEÑO
GRÁFICO
ELKARTEA

Marraskia eta eskulanak
(haurrak) 17:30 - 19:00

Pintura 16:00 - 17:30
(helduak) 19:00 - 20:30

Talla 18:30 - 20:00

Jose Arrese kalea, 3
943 01 20 00
artedekainu@gmail.com
Matrícula una osan zabalik

Mikroaren bestaldean

Doinua, hitza eta errima arteko jolasean egoki aritzen da Beñat Lizaso. Oholtzatik jaitsita ere badu zer kontatu. 📝📷 Nora Alberdi

T

xikitan ez zen geldirik egoten Beñat Lizaso (Azpeitia, 1982). "Oso egoskorra nintzen, nire helburua lortu arte ez nuen amore ematen, negar ere egiten nuen askotan nahi zuena lortzeko". Azpeitiko Ikastola Ikasberri Kooperatiban egin zituen ikasketak. "Ez zitzaidan lan egitea gustatzen, oso alperra nintzen", dio Lizasok. Baina irakasleekin oso ongi moldatzen zela dio. Geldirik egon ezinak, dantza ikastera eraman zuen, eta Itsasi dantza taldean aritu zen zenbait urtez, txikia zela.

Gaztetxoagotan, adin horretan ohikoak diren kiroletan aritu zen: saskibaloian, futbolearen eta pilotan. Gaur egun, berriz, noizean behin, pilotan jokatzeko ohitura du, eta mendira ere joaten da. Urrian, Tarragonako mendi lasterketan parte hartu zuen lagun batzuekin batera, eta, guztira, 101 kilometro egin zituzten mendian gora eta behera. "Ibilbidea amaitzea lortu genuen, nahiz eta korrikari egin beharrean, oinez egin genuen ibilbidearen zati handiena. Halere, gustura amaitu genuen lasterketa", aitortu du. Ibilbidea amaitu

zean, helmugan bertan, bertsoa bota zuen. Honako hau zioen bertsoaren amaierak: 'Kostatu zaigu, baina ailegatu gera'. Lizasoren hurrengo erronka, Ehunmilakekin batera, Goierriko G2haundiak egitea da; guztira, 88 km-ko distantzia duen ibilbidea. Ondoren, abuztuaren amaieran, Pirinioetara joateko asmoa du 120 km-ko ibilbidea egitera.

Ikastolan, nola edo hala, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) amaitu ondoren, Zarauzko Antonianoetara joan zen elektrizistatza modula egitera. Baina ez zuen amaitu zi-

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Berritzen	026069
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	15 05 16
Gaztelekua / GIB	15 71 61
Lanbide	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
KIUB	15 72 01
Igerilekua	81 41 21
Emakumeen Txokoa	15 70 55
Ertzaintza-Azkoitia	083780
Baigera I	81 51 71
Baigera II	81 23 89
Epaitegia	025191
Ingurugiro Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulatorioa	025400
Anbulator. larrialdiak	025401
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	814400
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	890017
Azpeitian Zer?	080688
Erlo Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Arrate Irratia	943 12 01 73
Euskadi Irratia	943 01 23 00
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

Bildu	15 72 00
-------	----------

FARMAZIAK (ABENDUA)

1-7-15-20-22-26-31
Eizagirre (Azpeitia).
943811274

8-14-19-25-27-30
Jacome (Azpeitia).
943 080258

2-5-13-17-18-23-29
Alberdi (Azpeitia).
943815974

9-10-11-16-24
Beristain (Azpeitia).
943811949

3-4-6-12-21-28
Aranburu (Azpeitia).
943 811350

GAUEZ, URTE OSOAN
Jacome (Azpeitia).
943 080258

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Abenduaren 28an izango
dute hitzordua, 17:00etatik
21:00etara, anbulatorioan.

EAJ	81 55 70
Sortu	15 72 00
EA	81 00 11
Aralar	64 42 59 95
SINDIKATUAK	
ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Sanagustin	10 52 20
Kultur Mahaia	674 16 56 84
Euskara Patronatua	81 45 18
Natul euskara taldea	661 10 44 46
Udal Euskaltegia	81 19 47
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	816508
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	816380
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28
Uztaro	81 31 90

BESTERIK

Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi	943 08 06 88

ORDUTEGIAK

UDALETXEA || Asteguna: 08:30-14:00 || Larunbata: 09:00-12:30 **UDALTZAINGOA** || Egun osoz irekita egoten da **ANBULATORIOA** || Egun osoz irekita egoten da **IGERILEKUA** || Astelehena: 14:00-21:00 || Beste astegunak: 07:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 || Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 || Kanpoko igerilekua: ekaina arte itxita **KIROLDEGIA** || Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 **UDAL LIBURUTEGIA** || Astegunak: 09:30-13:00, 16:00-20:00 || Larunbata: 09:30-13:00 || Udan, Gabonetan: 08:30-14:00 **GAZTELEKUA** || Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 || Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



▲ GELTOKI BERRIAK.

Sanjuandegiko autobus geltokia lekuz aldatu dute Etxebeltz etxearen aurrera eta Esklabetara. Loiolan, berriz, Loiola zentro medikoaren aurrean eta lehengo geltokiaren ondoan egokitu dituzte.

GARRAIOA

ALDALUR	943 85 25 87
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

|| autobusen ordutegi osoa:
www.uztarria.com/azpeitia/
autobusak

ANNE UNANUE-AITOR IRIARTE

Avalon, Australia

“motxilak hartuta Australia ezagutzeko irrikaz gaude”

Herrialde eta kultura berriak ezagutzeko gogoak bultzatuta, Australian dabiltza bi azpeitiarrak.  Ainitze Agirrezabala

Nolatan zaudete Australian?

Duela hiru hilabete etorri ginen, eta Avalon izeneko kostako herri batean bizi gara. Aspalditik genuen kanpora ateratzeko gogoia, eta orain ikusten genuen garairik eta sasoirik onena horrelako abentura bati ekiteko.

Ordutik, nondik nora ibili zarete?

Oraingoz ez gara asko mugitu, Sydney eta inguruak bisitatu ditugu. Orain hasiko gara bidaiatzen. Irrikaz gaude Australia motxilak bizkarrean hartuta ezagutzeko.

Lanari heldu al diozue?

Iritsi orduko, baserri organiko batera joan ginen, eta denetik egiten genuen han: egurra moztu, baratzeko lanak... Orain, berriz, obran, lorezain, etxeak garbitzen... gabiltza.

Zer gustatu zaizue gehien? Eta zer gutxien?

Gehien, kostaldeko parajeak eta jendearen adeitasuna. Baita bizitzeko duten patxada ere. Gutxien, prezioak. Oso garestia da hau.

Zer nolakoak dira australiarrak?

Leku denetan bezala, denetik dago, baina, guk ikusi dugunaren arabera, jendea jatorra eta irekia da. Esaterako, supermerkatuan or-

daintzerakoan, guztiek galdetzen dizute eguna zer moduz joan zaizun.

Zer dakite han Euskal Herriaz?

la gehienek ezagutzen dute Euskal Herria. Badakite Espainiatik independizatu nahi duen herrialdea dela, baina hortik aurrera ez dakite gehiegi.

Euskaldunik topatu al duzue?

Besterik ez. Baita azpeitiarrak ere!

Zer du Euskal Herriak Australiak ez duena? Eta alderantziz?

Horko jana bezalakorik ez da munduan. Askok gogoratzen gara urdaiazpiko pintxoarekin, txuletarekin eta poteo giroarekin. Australiako eguraldi ona, berriz, eskertzen da.

Zer botatzen duzue faltan?

Familia, lagunak eta janaria.

Zer moduz hizkuntzarekin?

Denekin komunikatzea eta nahi dugun hori esatea lortzen dugu. Beraz, ondo.

Etxera itzultzeko asmorik baduzue?

Bai, asmoa badugu, baina ez dakigu noiz. Oraindik plan asko ditugu aurretik, herrialde asko ezagutzeko asmoa eta gogoia. Dirua amaitzen zaigunean ikusiko gara hor!*

1



1. Anne Unanue eta Aitor Iriarte Harbour Bridgen, Sydney. 2. Palm Beachen.

3. Windsor baserri organikoan.

17.165 kilometrora dago Avalon.



3

Manresara erromes

Inaziok Jerusalem zuen gogoan, eta beti Jerusalem. Bazekien milaka giristino odola isuri zutela Turkoer Jerusalem kendu beharrez. Eta hura, Jesusen eta Mariaren soldadua, nola zegoen agertze bat bederen Jerusalem eratu egin gabe? Baina Bartzelonako portua izurriteak hetsia zegoen; untzirik ez zitekeen sar, ez atera. Izurritea jabaldu [baretu] artean, Manresan egon zedin kontseilatu zion frantses konfesoareak. Denbora hartan herri ttipi bat zen Manresa, Montserratetik urrunxeago. Dominikanoek bazituzten han komentu bat eta ospitale bat. Hura zen Inaziok behar bezalako tokia. Han eraman zezakeen bizitze gorde eta saindu bat, Jainkoa baizik lekukorik gabe.

Manresa bidean gibeletik hatzeman zuten Montserrateko beilari batzuek, bi gizon gaztek eta lau andre. Andre haietarik bat doña Ines Pascale zen, Bartzelonatik Manresarat izurritearen ihes etorria, eta Manresatik Montserraterat ardura [askotan] zihoana.

—Andrea —erraten dio Inaziok—, hurbil naiz zenbait ospitaletarik?

—Pelegrin jauna, ospitalerik hurbilena Manresakoa da, gu gauden herrikoa. Nahi bazara gurekin etorri, irekiko dizugu ospitaleko atea eta gure arta onak gogotik emanen dizkizugu. Zuk nahi duzun urratsean joanen gara. (...)

Doña Inesek ospitaleraino lagundu zuen eta ospitaleko buruzagiari ontsa gomendaturik utzi zuen. Ospitalean sartzean xedetan zen Inazio naturalezari gerla egiteko, Espainiako etsaier egin zuen bezala. Jostetazko bizi baten oroitzapena penitentziarik garratzenetan nahi zuen ito.

Orain artean distiratzten zuen haren buroak, orain ez da orrazten ere. Orain artean hein ederrean zegoen bizarra, orain nolanahi uzten du. Orain artean txuri ziren haren eskuak, garbi haren azkazalak, orain ez die behatze bat ere ematen. Orain artean korteko mintzaireia zuen, orain jende xehearen min-




|||||||miel a. elustondo|||||||

|||‘Bi saindu heskualdunen bizia’-n kontatzen duen moduan irudikatu dut azpeitiar kuadrilla Manresan

tzaireia. Orain artean aski mutil bazituen, bera jartzen da orain erien mutil. Erien zauriak garbitzen eta lotzen ditu, eta naturalezak arrangurarik egiten badio, belauniko jartzen da erien oinetan eta haien zaurier musu ematen die. Ez da horretan barutzen [geratzen]; orain artean atorra mehea ekarri du, orain zilizio garraz bat. Belar luze eta latz batzuek egiten du gerriko bat, larru arrasean ezartzen duena. Azotea hartzen du egunean hiruretan. Ogirik beltzena janaritzat; ogi hura atez ate eskatzten du bere urguiluaren zapatzeko. Meza egun oroz entzuten du dominikanoen elizan. Zazpi oron iragaten ditu otoitzean, beti belau-niko. Lurrean etzaten da, burua harri bati edo taula bati kontra. Lo xorta bat egin orduko jaitkitzen da eta otoitzean hasten. Igandeetan dominikano apez bati konfesatzen da eta komuniatzen du. Igandeetan, ogiaz bestalde, berdagailu [barazki] zerbait jaten du, baina hautsa emanik, gormandiza [gula] egin bel-durrez”

Frantzisko Lapitzek *Bi saindu heskualdunen bizia*-n kontatzen duen moduan irudikatu dut azpeitiar kuadrilla Manresan. Eta, kuadrilla osoa ez bada, *Pitxin* behintzat! (eta, hemen, emotikonotzar bat, algaraka!)*



ERRESERBATU ZURE ETXEBIZITZA URTE AMAIERA BAINO LEHEN, ETA APROBETXATU BALDINTZA BEREZIAK

*PROMOZIO HAU ETXEBIZITZA KONKRETU BATZUETAN ETA 2016KO ABENDUAREN 31RARTEN DA BALIAGARRIA



Alberdi-eneA

zure etxebizitzako zuzendaria

INFORMAZIOA ETA SALMENTA

683 704 750

JOSE DE ARTETXE, 8 KALEA

www.alberdienea.com

ERAIKUNTZA BERRIA
54 ETXEBIZITZA
1, 2 ETA 3 LOGELA

3 LOGELA
229.000€ - TIK
HASITA

GARAJE ITXIAK;
BIKOITZAK ETA BANAKOAK



KIMU BAT
GARDEN

KIMU BAT 25 urte +
Urrestila bidea. Azpeitia

943 15 00 85
www.kimubat.com



IRRIBARRE HANDIENAK ZAINZEN DITUGU

HORTZ INPLANTE ETA
PROTESIETAN ADITUAK
GARA.

*Erraztasunak
ordainketan.

Jose Artetxe kalea 5
(Ambulatorio ondoan)
20730 Azpeitia

📞 943 02 59 55



INNOVA

HORTZ KLINIKA
CLÍNICA DENTAL